

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Osasun Departamentuak 10,5 milioi euroko inbertsioa egingo du NOGeko Laborategi Bateratuaren eraikin berria eta komunikazio-galeria berria eraikitzeko

*"Pabiloi Urdinaren" alboko partzelan kokatuko da, eta Análisi Kliniko, Hematologia eta Larrialdietako laborategiak egongo dira bertan*

Asteazkena, 2019.eko urtarrilak 30

Osasun Departamentuak 8.700.477 euro inbertituko ditu Nafarroako Ospitale Gunearen barrutian eraikin berria eraikitzeko, NOGeko laborategi bateratua (LUNA) izatearren, Foru Exekutiboak ohiko bilkuran gaur baimendu duen moduan.



Eraikin berriaren irudia.

Azpiegituran, Análisi Kliniko, Hematologia eta Larrialdietako laborategiak behin betiko kokatuko dira, egun Navarrabiomed-en eraikinaren lehen solairuan kokatzen baitira behin-behinean, modu desegokian eta funtzionalki espazio eskasarekin.

### 6.000 metro karratu

Higiezina "Pabiloi Urdinaren" alboko partzelan eraikiko da, eta 5.982 metro karratuko azalera eraikia izango du, honela banatuta: erdi-sotoa, behe eta lehen solairuak eta estalkiko solairua. Azalera egungoaren bikoitza da.

Eraikin berrian, Análisi Kliniko, Hematologia eta Larrialdien programa funtzionala garatu ahal izango da. Zehazki, behe solairuan, sarrerez gain, besteak beste, honako hauek egongo dira: idazkaritza, laginak hartzeko eta preanalitikorako eremuak, automatizazioa, Urianálisi, Hematologia eta Larrialdien laborategia.

Lehen solairuan eremu bereziak (Andrologiako laborategia, Biokimika berezia, Xurgapen Atomikoa, Proteinak eta Autoinmunitatea) eta Immunologiako laborategia, bulegoak, bilera-gelak, biltegiak, hozkailuen gelak eta komonak egongo dira. Erdi-sotoan, berriz, ugalkortasun-laginak hartzeko gela, zaintzako logelak, aldagelak, komonak, hondakinak kudeatzeko lokalak eta instalazioen espazioak kokatuko dira.

Aipatzekoa da eraikitako azalera erabilera-premiak gainditzen dituela; beraz, etorkizunerako erreserba-espazioak sortuko dira. Obrak udan hastea eta eraikina 2021eko bigarren seihilekoan amaitzea aurreikusten da.

## **Komunikazio-galeria berria**

Halaber, Gobernuak baimena eman du aldi berean zerbitzuen lurpeko galeria berria eraikitzeko. 1.100 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia izango du eta 1.481.7930 €-ko kostua. Galeriak azpiegitura berria NOGeko gainerako eraikinekin konektatuko du, eta, era horretan, izugarri hobetuko da NOGeko oraingo galeria-sarea, bai zentroko gainerako zerbitzuekin konektatzeagatik, bai Ospitalearen eremu orokorraren barruan duen kokapen estrategikoarengatik, etorkizuneko konexioei ere irtenbide eraginkorragoa ematen lagunduko baitie.

## **Kontsumo ia nuluko eraikina**

Laborategi Bateratuaren eraikin berria eraikitzeko proiektuak erabat betetzen ditu kontsumo ia nuluko eraikin bati energia-eraginkortasunaren aldetik eska dakizkiokeen araudi-eskakizunak. Eskakizun horiek nahiz eta eraikitzeko hasierako aurrekontua nabarmen igo, ingurumena errespetatzen dute, eta epe ertainera ekonomikoki errentagarriak dira.

## **Navarrabiomed, ikerketarako espazio gehiago**

Esan bezala, laborategiko zerbitzuak funtzionalki hobetzeaz gain, eraikin berria eraikitzearekin 2011n inauguratutako Navarrabiomed eraikinean LUNAk egun hartzen dituen 2.637 metro karratu libre geratuko dira ikerketarako.

Gogoratuko duzuen moduan, ikerketa biomedikoaren zentro berria, Navarrabiomed, eraikitzeko lanen %50a Europar Batasunaren FEDER Funtsekin finantzatu zen, higiezin erabat osasun-arloko ikerketarako erabiltzeko baldintzarekin.

Osasun publikoaren ikerketarako espazio berriak izatea estrategikoa da une honetan; izan ere, Nafarroako Gobernuak osasun-arloko ikerketarako inbertsioa hirukoiztu egin du, Zientziaren Foru Lege berria onartu da, NOGeko Unibertsitate Ospitalearen izaera hartu du, Navarrabiomed "Ikerketa Biosanitario Publikoko Zentro Mistoa" bezala eratu da, Nafarroako Unibertsitate Publikoa partaide duela, Ingeniaritza Biomedikoa, Bioteknologia eta Datuen Zientziako gradu berriak ezarri berri dituen erakundea, eta ospitale-barruti berean Medikuntzako Fakultatea abian jartzearen aldeko apustua egin da.